

Proba idatzi honek 3 galdera ditu, eta 90 minutuan, gehienez, gauzatu behar da.

Lehenengo bi galderetan, proposatzen diren bi aukeren artean bakarra hautatu eta garatu. Azkenekoan, testu bakarra proposatzen da iruzkintzeko.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea.

Esta prueba escrita se compone de 3 preguntas y debe ser realizada en 90 minutos, como máximo.

En las dos primeras preguntas, se proponen dos opciones de las que solo debes desarrollar una. En la última hay un único texto para comentar.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2025eko OHIKOA

EVALUACIÓN DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

ARTEAREN OINARRIAK

FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

1. GALDERA (proba idatziaren % 40 balio du): Bi irudi proposatzen dira. Bat aukeratu ezazu, eta egizu irudiaren iruzkina. Analisisirako proposatzen den gidoia erabili behar da.

Gidoia:

1. Forma-analisia: aztertu lanak erabiltzen duen hizkuntza plastikoa (bolumena, azalera, konposizioa, polikromia, etab.).
2. Egileak baliabide plastiko horiek lanaren sorkuntza globalean nola erabili dituen interpretatu.
3. Artelanaren gaia identifikatu, eta saiatu haren esanahian sakontzen.
4. Adierazi zein diren obraren funtzioak, eta arrazoitu.
5. Erlazionatu irudia dagokion arte-estilo edo mugimenduarekin, eta argudiatu mugimendu horren zein estilo-ezaugarri ikusten diren bertan landuak eta, zure ustez, zein kronologiatan gauzatu den artelana.



Samotraziako garaipena, K.a. II. mendea



Ger-eko amabirjina (Katalunia),
XII. mendea



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2025eko OHIKOA

EVALUACIÓN DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025


ARTEAREN OINARRIAK

FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

2. GALDERA (proba idatziaren % 40 balio du): Hautatu bi aukeretako bat (A aukera edo B aukera).

A aukera

Artelanak konparatzea eskatzen da. Bi irudiei begiratuta, konpara itzazu hainbat alderdi kontuan hartuta: gaia/generoa/sinbolismoa, konposizioa, funtzioak, testuingurua, sorkuntza-ikuspegia, espresio-moduak... Aztertu antzekotasunak eta ezberdintasunak.



Hilma AF KLINT:
Zisnea 16, 1915



Vasili KANDINSKY:
Zirkuluak zirkuluan, 1923

B aukera

Azter ezazu zein tratamendu izan zuen argiak Errenazimentutik Barrokora.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
EBALUAZIOA

2025eko OHIKOA

ARTEAREN OINARRIAK

EVALUACIÓN DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2025

FUNDAMENTOS ARTÍSTICOS

3. GALDERA (proba idatziaren % 20 balio du): Jarraian, testu zati bat proposatzen da. Testua irakurri, ideiarik inportanteenak laburbildu, eta gogoeta egin aipatzen den kontzeptuaren bilakaerari buruz. Zure iritzia pertsonala koherenteki azaltzea elementu gehigarri bezala baloratuko da.

ARTISTA

Artista, pertsonaia berezia, bestelakoa, gainerako gizaki guztiak ez bezalakoa dela dioen ideia topiko zabalduenetako bat da, bai literatura artistikoan, bai jende soilaren sentimenduan. Azken kasu horretan, sentimendu hori trebetasunak edo iaioetasunak edozein motatako adierazpenetan sortzen duen mirespenean oinarritzen da. Baina ideia hori indartu egiten du, gainera, *literatura* eskergak, funtsean asmatzailea eta propagandistikoa izan den literaturak. Izan ere, guran guztiongan indartsu errotu baitu artistak osatzen dituen osagai mota bat badagoela, eta artista *izateko* artista *jaio* behar dela: azken batean, artista norbait berezia dela.

José JIMÉNEZ. *Artearen teoria*, 2002